

GURE EKOSISTEMAKO IRUDIAREN AZALPENA

Taldea: 4. Taldea

Izen-abizenak: Gadea Alonso, Ane Ibañez, Hugo Sastre eta Ander Segarra.

Izenburua: Artikoko glaziarrak.

1. **Irudiaren mezua eta efektuak.** Zer adierazi nahi dugu irudiaren bitartez? Zeintzuk dira irudiak adierazten dituen efektuak?

Artikoko glaziarreko itsasoa eta erliebea azaldu nahi ditugu, bertan dauden animaliak gure irudian erakutsiz. Gaua da, ilargia dago, horrez gain itsas-txakur bat, bost pinguino, bale bat eta hogeitarrain daude.

Adieraziko ditugun efektuak hurrengoak dira:

Mugimendua (pinguinoak salto egiten uretara, arrainak eta balea igeri egiten) eta **norabidea** (pinguino bat beherantza, beste bat ezkererantza salto egiten, beste hiru pinguinoak eskumarantza begiratzen, itsas-txakurra ezkererantza begiratzen eta arrainak gorantz igeri ari dira). **Hotza** (glaziarretan, itsasoan eta zeruan), **bizitasuna** kolore batzuetan, **sakontasuna** (ilargian zeruan ezkutatuta) eta **kontrastea** koloreetan.

2. **Ikus-elementuak.** Irudian erabiliko ditugun lerro eta koloreak azalduko ditugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako ikus-elementuak eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

• Lerroak (lerro motak eta hauen ezaugarriak):

Lerro zuzenak daude, horizontalak: ura eta zerua bereizteko dagoen lerroa horizontala da, normalean horizontalak lasaitasuna adierazteko erabiltzen dira baina irudi honetan ez da lasaitasunik adierazten lerro horren bidez, intentsitate gehiagorekin margotuta dago, horrela gehiago nabarmentzen da eta garrantzia gehiago ematen dio lerro horri.

Lerro kurbatuak ere badaude: izozmendien lerroak kurbatuak dira forma eman dezaten, animaliak ere (balea, itsas-txakurra, pinguinoak) lerro kurbatuekin eginda daude **mugimendua eta norabidea** adieraz dezaten, lerro kurbatuek **mugimendua** adierazten dute eta marrazki honetan horrela da, izozmendien

lerroak nabarmenduta daude intentsitate izateko eta garrantzia gehiago emateko eta animalien lerroak intentsitate handiagoarekin eginda daude gehiago nabarmentzeko, animaliak hobeto ikusteko eta garrantzi gehiago euki dezaten.

- Koloreak (kolore motak eta hauen ezaugarriak):

Irudi honetan gehien erabiltzen diren koloreak hotzak dira, urdina eta morea (urdina itsasoa, balea eta zerua eta morea zeruan), kolore beroak horia, larrosa, marroia, gorria eta laranja dira (horia pinguinoetan, laranja pinguinoetan eta itsas-belarretan, larrosa arrainetan, marroia itsas-txakurran eta gorria itsas-belarretan). Kolore hotzek toki hotz batean dagoela adierazten du eta **temperatura baxuak eta hotzak** daudela adieraziko dugu irudian.


Kontrastea eta bizitasuna sortuko da koloreen artean, horrela elementu batzuk irudian bereiziko dira.

Kolore beltza, neutroa, pinguinoetan erabili dugu.

3. **Irudiaren konposaketa.** Irudian erabiliko dugun konposaketa azalduko dugu. Azalpena idazteko **ZER, NOLA eta ZERTARAKO** egiturari jarraituko diogu, erabilitako konposaketa eta hauen ezaugarriak irudiaren mezua eta efektuarekin harremantzeko.

- Konposaketa (simetria, asimetria, erritmoa... eta honen ezaugarriak):

Gure irudia laukizuzen horizontalean egingo dugu irudiaren ikuspegia zabala adierazteko.



4. **Besterik.**

Izarrak jarri ditugu handitasuna adierazteko.